



### 3 GIZARTEA

#### Xirimiriren itxiera ebatzi du Auzitegi Gorenak

107 herriko taberna ixtea berretsi zuen ostegunean Auzitegi Gorenak eta horietako bat da herriko Xirimiri elkarte. Ostegunean manifestazioa egin zen itxiera salatze-ko eta ostiralean bilera egin zen elkartearen eman beharreko hurrengo urratsak erabakitze-ko. Elkarteko kideek ez dute baztertzeko egitasmo berri bat martxan jartzea.

### 4 JAIK

#### San Joan bezperako ospakizunak bihar Andatza plazan

Urtero bezala, udari ongietorria egingo dio herriak bihar, San Joan bezpera egunean. Aurtengoan Andatza plazak hartuko du jai hori. 22:00etan piztuko dute sua, baina ekin-tzak lehenago hasiko dira. Erketz EDT dantza taldeak zortzikoa eta soka-dantza eskainiko ditu 21:30etatik aurrera, eta Biyak Bat erretira-tuen elkarteak gimnastika erakustaldia emango du 18:00etatik aurrera.



San Pedro jaiak hasi baino egun bat lehenago, sorgin-dua izango da herria. Ostegunean, ekainaren 25ean hasiko dira aurtengo Sorgin Jaiak. Hamaika ekin-tza eta kontzertu antolatu dituzte ekainaren 29ra arte. Lasarte-Oriako langileria izango da aurtengo omendua; eurek botako dute txupina Okendon.

Aurkezpen prentsurre-koa eman zuten joan den ostegunean Sorgin Jaiak-eko kideek Okendo plazan. Mahai baten bueltan bildu ziren kideak eta baita hainbat herritar ere; Michelin fabrikako liburu bat ikus zitekeen mahai gainean, 100 eguneko grebari buruzkoa. Ez zen kasualitatea. Lasarte-Oriako langileria hartu dute gai modura antolatzaileek. 1976ko gertaera hori abiapuntutzat hartuta, hausnarke-ta egin dute: "Garai horretan herriko hainbat komunitate desberdin elkartu ziren, herriko bertako zein Espainiako hainbat probintziatik etorritako langileak, kausa komun baten inguruan borrokatzeko: 100 eguneko grebaren inguruan. Batasun hori eredu gisa hartuz, gure jaietan ere hori lortu nahi dugu, guztionak izatea: denok eroso sentituko garen giroa zabaldu eta datozenak ongi etorriak sentitu daitezzen herria eraiki dezagun".

Gaur egungo langilariaren egoerari buruz ere aritu ziren atzoko prentsurrekoan: "Euskal Herriko zein Lasarte-Oriako gazte askok kanpora joatea beste irtenbiderik ez daukate, hemen ez baitago



Sorgin Jaiak-eko hainbat kide eta herritar, joan den ostegunean Okendo plazan eman zuten prentsurrekoan.

haientzako lanik. Garai batean langileak hona etortzen ziren lan eta etorkizun baten bila, eta alderantziz gertatzen ari da orain". Garaiak aldatu egin diren arren, langileen arteko batasuna oraindik "beharrezkoa" dela nabarmendu zuten.

Batasun hori jaien lehen egunean islatuko da, Okendon: Lasarte-Oriako langile-riak botako du txupina.

#### Egitarau zabala

Hainbat ekintza antolatu dituzte Sorgin Jaiak-eko kideek ekainaren 25 eta 29ra bitartean. Lehenengo egunean koadrilen jaitsiera egingo dute Isla plazatik abiatuta, 17:30ean. Txupinazoa 20:00etan botako dute Okendo plazan, eta bapo afaltzeko aukera edukiko dute herritarrek handik ordu batera, Sorgin afarian. Okendon bertan izango da hori ere. 23:30ean hasiko dira kontzertuak; King Kong Boy eta Eskean Kristo ariko dira Okendon.

Ekainaren 26an ongi etorria egingo zaio aurtengo herri gonbidatuari. Gandiatik (Valentzia) etorriko dira hainbat herritar jaietz gozatze-ra. Hurrengo egunean herriko koadrilak elkartu eta Tximistarrera parkera joango dira bazkari herrikoia egitera, 12:00etan. Joan den urtean egin zuten lehenengo aldiz eta, arrakastatsua izan zela ikusita, errepikatu egingo dute aurtun.

Iganderako jada ohikoa bilakatu den Oriako jaitsiera antolatu dute, 17:30ean. Ondoren, hainbat kontzertuz gozatu ahalko dute herritarrek. Taldeak Erokomeri (Borbora zen berez etortzekoa, baina ezin izan du azkenean), Bihozkada eta Rok Kan Broom izango dira.

Astehenerako ere prestatu dituzte ekintzak, baina ez dute horien berri eman oraindik, "sorpresa" izango baitira. Egun horretan, ekainaren 29an amaituko dira aurtengo Sorgin Jaiak.

Aipatutakoez gain, badaude beste hainbat ekintza aurtengo Sorgin Jaien egitarauan; osteguneko ale berezian argitaratuko ditu TXINTXARRIK.

#### Gandia eta Xirimiri

Sorgin Jaiak-ek gonbidatuta, Gandiako (Valentzia) hainbat herritar etorriko dira hurrengo egunetan. Lo egiteko toki bat bazuten jada, baina antolatzailerak jakinarazi zuten udal berriak "debekatu" egin diela gune hori erabiltzea: "Inolako arrazoirik eman gabe, Udal berriak galarazi egin digu lo egiteko gune hori erabiltzea. Ez diogu itxura onik hartzen erabaki honi; espero dugu atzera ez bueltatzea, itxitasuna eta egoskorkeria Udalaren ezaugarriak zirenekora".

Bestalde, Xirimiri elkarteari "maitasuna eta babesa" emateko ere baliatu zuten agerraldia: "Xirimirik asko eman digu urteotan; maitatzen eta zaintzen jarraituko dugu". Auzitegi Gorenak elkartearen itxeko agindu zuen joan den astean.

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Krisi garaian,  
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,  
gure prezioetan!

Prezio berriak fotodepilazioan  
ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Basurde burua

Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

## HERRIGINTZA

# Hautestontzi bete itxaropen

## Ehundaka lasarteoriarrek parte hartu zuten atzo Anoetan egin zen ekitaldian

laz Uharte Arakileko giza katean egin bezala, ehundaka herritar joan ziren atzo Donostiara, Gipuzkoako gainontzeko herriekin batera Anoeta estadioan hautestontzi erraldoia irudikatzen. Arratsaldeko 17:30eko ekitaldi nagusia baino lehen, Urumea ibaiko zubietako oihalkatean ere hartu zuten parte, eta Anoeta inguruko giro eta musikaz gozatu.

**B**este mugari bat du Gure Esku Dagoren historiak atzotik. Gipuzkoa osoko milaka herritarrek bete zuten Anoetan oihal zatiekin irudikatutako hautestontzi erraldoia. Pertsona horietatik guztietatik ehundaka izan ziren Lasarte-Oriatik joandakoak. Haiek ere zapaldu zuten zelaia eta altxa zituzten oihalak zerura. Bi esku eta hamar hatzekin hartu zituzten, barne-barnean darmatzaten hamaika itxaropenen erakusgarri gisa.

Ekitaldi nagusia arratsaldean izan zen, 17:30ean. Hori baino askoz lehenago hasi zen festa handia, ordea. Donostiara trenez zein autobusez joan

ostean, Koldo Mitxelena erai-kinaren aurrean bildu ziren herritarrak 10:30ak inguruan. Bertatik Urumeako zubietara abiatu ziren musika lagun zutela, 12:00etan hasi zen oihalkatean parte hartzeko. Joan den urtean Uharte Arakilen egindako giza katea ekarri zuen gogora batek baino gehiagok.

Ordu erdiz bertan egon ostean, Anoetara bidea hartu zuten txoznetan indarrak hartu eta kontzertuez gozatzeko, hautestontzia bete aurretik.

### Globoa eta dokumentala

Atzoko ekitaldirako motorrak berotzeko, hainbat ekintza



Lasarteoriar ugari izan zen atzo Donostian bai oihalkatean, baita Anoetan ere erabakitze eskubidearen aldarria egiten. J. PEREZ

antolatutako zituen asteburuan herriko Gure Esku Dago taldeak. Larunbateko eguraldi ona baliatuz, zozketako sari-dunek globoan bidaiatzea egin zuten azkenean, Tximistarreta parkean.

Ostiral arratsaldean ere hainbat herritar gerturatu ziren Villa Mirentxura, 'Jostunak' dokumentala ikustera. Aurretik, azken oihalak josi zituzten Okendo plazan.



Gure Esku Dago pankarta zintzilik zeraman globoa ikusi ahal izan zen zeruan larunbatean.

# Vespa eta Lambretta rally ikusgarria

**M**otor hotsak entzun dira Masteburu honetan Lasarte-Oriaren zehar. Zehatzago esanda, Vespa eta Lambrettenak. Scooter Club Euskadik antolatuta, Erkidegoko eta Estatuko hainbat herrietatik etorritako motorzaleak izan dira herrian eta herriko zenbait leku erakusleho bezala erabili dituzte.

Ostiralean, Jaizkibel plazan hasi zen erakustaldi-sorta. Vespa eta Lambretta beltzak, gorriak, zuriak... Koloretsua izan zen erakusketa.

Ekitaldiak ez ziren hor amaitu ordea, erakusketa bukatu eta gero Buggy tabernan afaldu eta Buenetxean festa egin baitzuten ordu txikiak arte.

Larunbatean, erdialdea hartu zuten motorrek. Eguerdira arte, Okendo plazan ikusi ahal izan ziren motorrak. Ostean, 50 km. irteera bat egin zuten eta Hernaniko Saretxo jatetxean bazkaldu zuten. Bazkalostean, berriro, Lasarte-Oriara egin zuten buelta eta Elizatze plaza aparkaleku bihurtu zen.

Mendi Kafe-Rock tabernan disko zaharren soinuaz gozatu ahal izan zuten eta Arkupe eta Yolanda tabernetan afaldu zuten. Buenetxean amaitu zuten gaua.


Basaundin izan ziren igandean. Bertan erakusketa egin eta Buruntz-Azpi elkartearen bapoz bazkaldu ostean, amaitu zen topaketa.



Hainbat izan ziren asteburuan Vespa eta Lambrettak ikustera hurbildu ziren herritarrak. Okendo plazan giro ederra sortu zen.

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

Txintzarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua

#### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557

#### Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

**Aleak zenbakiko:** 7.800

#### txintzarri

#### Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Iñigo  
Gonzalez, Nerea Eizagirre  
**txintzarri@txintzarri.info**

#### Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola  
**publizitatea@ttakun.com**  
**administrazioa@ttakun.com**

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier  
Odriozola, Maider Seguro, Jexux  
Artebe, Gorka Alvarez, Pako  
Aizpitarte, Edu Galardi

#### Informatikoa:

Xabier Amadoz

## AUZIA

# Xirimiri ixteko agindua berretsi du Auzitegi Gorenak

Mobilizazioak egin ziren ostegunean itxiera salatzen

Elkarteko kideek egindako deiari erantzunda, herritar ugari hartu zuten parte ostegunean elkarretaratzean. 'Xirimiri, aurrera' eta 'Ez, ez, ez, lapurretarik ez!' bezalako aldarrikapenekin elkartasuna eta babesa adierazi zioten Xirimiriri. Ostiralean berriz, batzarra egin zuten elkartean bertan eman beharreko pausoak azaldu eta erabakiak hartzeko.



Ostegunean manifestazioa eta ostiralean bilera egin ziren egoeraren berri eman eta erabakiak hartzeko.

## TXINTXARRI

**O**kendo plazatik atera eta herriko hainbat kale zeharkatu ostean, Sagardotegi plazan amaitu zen osteguneko manifestazioa.

Zirkuluan bildu ziren bertan herritarrak, elkarteko kideen azalpenak adi entzuteko. "Pentsan publikatu dena besterik ez dakigu oraingoz; abokatuek hartu behar dute gaia orain", adierazi zuten Xirimiriko kideek.

Era berean, elkarretaratzea baliatu zuten herritarrei hausnarketa bat eskatzeko: "26 urte gure artean daramatzan

Xirimirik zer esanahi dauka herriarentzat eta norbanakoentzat? Gisa honetako gune irekiak oso gutxi daude herrian; galera ikaragarria izango da hau guretzat".

"Bi lan ildo" proposatzen dituzte bazkideek egoera honen aurrean: "Defentsari ekin behar diogu orain, herria aktibatzen bideak jorratu behar ditugu".

Bigarrena "gune ireki berri bat" sortzea dela azaldu zuten kideek; ostiraleko batzarrean sakonago landuko zutela gaia argitu zuten.

Amaitu baino lehen "indarrak batu" eta "aurrera jarrai-

tzeko" deiak egin zituzten elkarteko kideek.

### Hamahiru urteko prozesua

Hamahiru urteko prozesua izan da Herriko Tabernen aurkakoa.

2013ko urrian abiatu zen epaiketa, eta iaz uztailean Auzitegi Nazionalak 35/02 sumarioaren inguruko epaia eman zuen. Bertan herriko taberna konfiskatzeko agindua eman zuen, "ETAren egitura" finantzatzeagatik. Orain Auzitegi Gorenak berretsi du epaia.

### Batzarra

Ostiraleko bilera irekian azal-

du zuten, ez dakite zehazki noiz gauzatuko den elkarteen itxiera.

Hori dela eta Xirimirin San Pedro jaietan afariak emateko asmoarekin aurrera jarraitu eta taberna ere zabalik izatea herriko jaietan erabaki zuten. Hauen ondoren, herrian elkartasun kanpaina abiatzeko gainontzeko elkarrekin bilerak egin eta dinamika bat sortzea beharrezkotzat jo zuten.

Ez zuten baztertu elkarrekin bertan martxan jartzea baina aurretik asko dagoela egiteko azpimarratu zuten bertaratuak.

## JAIK

### Zikero afarirako txartelak salgai

Badatoz San Pedroak eta festa egitarauaren baitan jende asko biltzen duen hitzordua izan ohi da Zikero afaria. Aurtengoan ostiralean, ekainaren 26an izango da 22:00etan Okendon.

Afaria Ttakun elkarteak antolatzen du eta aurretik txartelak erosi behar dira. Dagoeneko Ttakunen bulegoan eta Jalgin daude eskuragarri. Afariaren prezioa 20 eurokoa da eta ohiko menua dastatuko dute parte hartzaileek, entsalada, zikeroa, postre gozoa, edaria eta kafea.

## HEZKUNTZA

### EPA-HHIn matrikulatzeko epea zabalik

Datorren ikasturtean EPA-HHIn hezkuntza arautuan ikasi nahi dutenek izena eman dezakete jada. Bigarren Hezkuntzako graduatua, Unibertsitate sartzeko edota Lanbide Heziketako probak prestatu nahi dituen orok jada eman dezake izena. Gaztelera ikasteko klaseak hartu nahi dituzten etorkinak ere matrikulatu daitezke.

Ekainaren 30a izango da 2015-2016 kurtsuan izena emateko azken eguna. Astelehenean ostegunera 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara edukiko dute aukera, eta ostiralean berriz 10:00etatik 12:00etara, Beko kale bidea 1 helbidean, EPA-HHik osasun etxearen egoitzako 3. solairuan daukan bulegoan.

## CLECEk ez du Atsobakarrek lan hitzarmena sinatu

**E**rainaren 2an Atsobakar Zahar egoitzako langileek CLECE enpresarekin 2015-2016 hitzarmena sinatzeko aurre akordio batera iritsi zirela jakitera eman zuten. Horrekin batera protestak eta greba deialdia bertan behera utzita. CLECEk ordea ez du oraindik hitzarmenik sinatu eta langileak haserre eta aldarrikapenei eusteko asmoz azaltzen dira.

Ekainaren 2ko aurre akordio horretan, enpresak bere borondatea agertzen zuen hitzarmenaren testua sinatzeko, hau da, Foru Aldundiaren proposamena 10 egunetan beregain hartzea. Langileek bere aldetik, erabaki zuten greba mugagabearekin ez hastea eurek azaldu moduan.

"Ekainaren 12a iritsi eta ezustekoa izan genuen. Enpresak hitzarmena sinatu beharrean, denbora gehiago



Hilabetez langileek protesta egin dute euren egoera salatzen.

itxoitea proposatzen digu gobernu aldatuta egon dela argudiatuz. Ez dituzte etxeko lanak egin eta ez dute udalarekin harremana izan".

Ostegunerako bilera jarri zuten enpresa eta langile ordezkariak. Honetan denbora gehiago behar dutela esan zutela adierazi dute langileek, "kobratuko dutela ziurtatu

behar dutelako". Baina enpresak ez du harremanik izan udal gobernu berriarekin.

"Soilik bi egoitza daude greban hitzarmena sinatzeko eta CLECEk dio kobratzeko berme nahikoa ez duela. Nahikoa da! Ez gara karitatea eskatzen ari. Foru Aldundiak badu Atsobakar egoitzari dagokion partida ekonomiko

onartuta. Gainontzeko enpresek hitzarmenaren sinaketari dagokiona kobratu baldin badute zertan ari da CLECE?"

Langileen ustetan CLECEk bermea behar badu, udala eta Aldundiarekin hitz egin behar du. Bi erakundeetako ordezkariak beti azaldu dira gaiaren inguruan hitz egiteko prest arazoari irtenbidea ahalik eta lasterren emateko. "Gure ustez aitzakiek ez dute balio, ez daukate gogorik sinatzeko. Hitzarmena sinatzearen aldekoak direla diote baina zeren zain daude?"

Langileek "argi dugu ez dugula egoera hau denbora luzez aguantatuko". Hau dela eta euren aldarrikapenekin jarraitzeko asmoa azaldu dute, Gipuzkoako gainontzeko egoitzetan bezala, Aldundiak egindako proposamena aplikatzea eskatuz.

## EUSKARA

### Bekak eskuratzeko aukera

2014-15 ikasturtean euskara ikasten aritu diren herritarrek matrikula-prezioaren %85 arteko beka jaso dezakete Udaletik. Ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera. Beka jasotzeko, Lasarte-Orian erroldatua egon behar da eta egindako ikastaroan gutxienez %85eko asistentzia bete behar da. Diruz lagunduko dira, euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa, autoikaskuntzakoak, barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada, eta, udako ikastaroak. Informazio gehiago udalaren web-orrian edo euskara zerbitzuan 943 37 61 84.

# San Joan sua bihar Andatza plazan

Zortzikoa, soka-dantza eta gimnasia erakustaldia eskainiko dituzte sua piztu aurretik

Urtero moduan San Joan sua piztuz egingo dio udari ongietorria Lasarte-Oriak. Antzinako ospakizun tradizional honen baitan badago berrikuntzarik, ordea: Andatza plazan ospatuko da aurtengoan, Okendon izan beharrean. San Joan sua ez da izango egitarauko ekin-tza bakarra. Gimnasia erakustaldia eskainiko du Biyak Bat erretiratuen elkarteak arratsaldean, Udal kiroldagian. Hori eta gero, gauean, San Joaneko zortzikoa eskainiko du Erketz EDT dantza taldeak. Soka-dantzaren txanda izango da hori amaitu eta berehala.

## TXINTXARRI

Jatorri paganoa du antzinako tradizio honek, baina Erdi Aroaz geroztik hartu zuen gaur egun ere mantentzen duen izena, San Joan Bataiatzailearen eskutik. Hainbat mende dituen arren, bizi-bizi jarraitzen du ohiturak eta Euskal Herriko bazter guztietan pizten da sua ekainaren 23an.

Lasarte-Orian ere mantentzen da usadioa noski, eta jende andana bilduko da Andatza plazan urteko gertara eta oroitzapen txar guztiak sutara jaurti eta era berean udari ongietorria egiteko. San Pedro jaia ailegatzeaz daude,

eta San Joan bezpera ospatzea baino hoberik ez dago motorrak ongi berotzeko.

## Biharko egitaraua

Gaueko hamarretan piztuko da San Joan sua Andatza plazan. Kalejira, fandangoa eta arin-arina dantzatuko dira jendeak gauza eta oroitzapen txar guztiak bertara bota bitartean.

Dantza eta musika 22:00ak baino lehenago hasiko dira, ordea. Erketz EDT dantza taldeak, hainbat musikari eta udalbatzako zenbait kiderekin batera Andatza plazara joan go da kalejiran.

Bertan San Joaneko zortzikoa eskainiko du 21:30ean,



Hainbat urte eta gero Andatza plazara bueltatuko dira San Joan bezperako ospakizunak, baita sua ere.

gaueko ekitaldiei hasiera emanez.

Horren ostean, tradizionala bilakatu den emanaldi baten txanda izango da: soka-dantzarena.

Aurten Erketz EDT-rekin batera, Alboka Abesbatzak eta Zero Sette Akordeoi orkestrak ere parte hartuko dute hainbat doinueta lagunduz.

Horiek izango dira biharko gaueko ekitaldiak.

21:30era itxaron gabe, arratsaldean ere edukiko dute zer ikusi herritarrek. Formoan daudela frogatuko dute Biyak Bat erretiratuen elkarteak, gimnasia erakustaldia egingo baitute Udal kiroldegian, 18:00etan.

## Errito eta usadioak

Gau magikoa eta ospakizun zaharra izaki, hainbat errito eta usadio egin izan dira Eus-

kal Herrian, belaunaldi desberdinetan zehar. Gure herrian ere bai. Ur bedeinkatua eta ur berria banatzen ziren baserri baserri, San Joan bezperan sua erre eta gero, adibidez.

Era berean, San Joan egunean elorri eta erramuarekin egindako gurutzak jartzen ziren ate eta leihoetan, trumoiak saihesteko. Ea bihar ere trumoirik ez dagoen.



Nafarroa, Behe Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba... herrialde ezberdinetako dantzak eskaini zituzten Erketz eta erketzeko lagunak taldeko dantzari larunbateko emanaldian.

## Dantzaz Euskal Herriari bira

Erketz EDT, Erketz Txiki eta Erketzeko lagunak taldeek ikasturte amaierako emanaldi eskaini zuten atzo arratsaldean. Giro ederrean Euskal herriko dantza ezberdinak ikusteko aukera izan zuten Okendo plazara hurbildu ziren herritarrek.

Lehenik, Erketzeko lagunak agurra egin zieten herritarrei. Ostean, Gipuzkoako dantzekin hasi zuten emanaldia. Ezpata Txiki, Brokel-dantza eta Loriak udan koreografia eskaini zituzten.

Bizkaira egin eta Lekeitioko Kaxarranka dantzatu zuten Erketz EDTko Asier Balerdik. Kaxaren gainean dantzaria eta behean, Beltzak Ostadar errugbi taldeko lagunak kutxa eusten.

Jarraian, Araba eta Gipuzkoako erromerietako dantzez gozatu ahal izan zen.

Erketz Txikikoek Txori txiki polit bat koreografia eta Berako makil-dantza lehenik eta emanaldian aurrera eginaz, Xoxoaine eta Branle de ranas dantzatu zituzten.

Nafarroari dagokionez, neskek bakarrik Sagar-dantza eskainizuten. Erketz eta Erketzeko lagunak taldeak Iturengo soka-dantza egin eta zenbait gaztetxoren laguntzaz kontradantza eta koadrille dantzatu zituzten.

Dantzari atsedena hartzeko, musikariak Gozategiren Don Jose doinua eskaini zuten.

Emanaldiari amaiera emateko, Behe Nafarroako Inauterietako dantza koloretsuak izan ziren Okendo plazan.



Erketzeko txiki eta gaztetxeok ere haien lanak erakutsi zituzten.

# UDA HONETAN ZATOZ ZEN EGITEIRA

eta nuke, baleki, zenekien...

zitzaion  
dezakezu  
litzaidake

genekien  
zetorren  
naitzke

AURKI EZAZU  
ZURE BARNEKO OREKA,  
EUSKARAREN BIDEZ

eman izena  
Gipuzkoako euskaltegietan

## ARETO FUTBOLA.

# El Punto areto-txapelketako garaile

Finala penaltietan erabaki zen. Kontsolazio finalean, Trumoi tabernak Indaux 4-1 garaitu zuen.

**Partida interesgarrikoa ikusi ahal izan ziren larunbatean Ostadar SKTk antolatzen duen areto-futbol txapelketako finalean. Final nagusian, El Punto eta Txindoki penaltietara iritsi ziren eta El Puntok eraman zuen ikurriña etxera. Kontsolazioan, Trumoi taberna izan zen nagusi.**

## TXINTXARRI

**N**erbioak dantzan izan zituzten Txindoki eta El Punto taldeko kideek areto-futbol txapelketako final nagusian. Partida penaltietara iritsi zen eta.

Partida hasieratik bi taldeek arerioaren atea bilatu zuten, baina ez zen zorterik izan edo Jonatan Seisdedos eta Francisco Iglesias atezainek asmoak zapuzten zituzten.

Era honetara, atsedenaldira husnako berdinketarekin iritsi ziren bi taldeak.

Bigarren zatian, berdin jarraitu zuten bi taldeek. Baina seigarren minutuan aurreratu zen Txindoki Asier Perezen golari esker.

Golak ez zuen ezer aldatu eta bi taldeek borrokan jarraitu zuten, Txindokik errenta

handitzeko eta El Puntok berdinketa lortzeko.

Eta partida amaitzeko sei minutu falta zirenean, El Puntok eraman zuen saria. Falta jaurtiketa batean, Jon Arozek gol sartu zuen.

Ondorengo minutuetan, bi taldeak garaipenaren golaren bila ibili ziren, baina ez zen horrela izan. Banako berdinketako markagailuarekin amaitu zen partida eta penaltietara jokatu behar izan ziren garaikurra.

Tentsioa handitzen joan zen. Jokalarien huts edo atezainen geldialdiak zirela eta, zortzi jaurtiketa behar izan ziren garailea erabakitzeko. Jonatan Seisdedos atezainaren geldialdi batek eman zion ikurriña El Puntori.

## Kontsolazio finala

Aurretik, kontsolazio finala

jokatu zuten Trumoi eta Indaux taldeek eta lehenak eraman zuen trofeoa etxera.

Lehen minutuetan partida borrokatua izango zela ikusi zen. Hala ere, Trumoik atsedena hartu baino lehen aurre hartu zuen markagailuan.

Bigarren zatian, berriz, Indaux berdinketaren bila joan zen eta ederki lortu zuen helburua.

Baina Trumoik ez zuen amore eman 2 eta 1eko eskuratu zueneta tartea ireki zuten ere beste bi gol sartuaz.

## Sariak

Bestalde, finaleko jokalarionenak, txapelketako pitxitxiak, jokalarionenak eta atezain onenak ere saria izan zuten.

Finaleko jokalaririk onena saria partidaren eta batez ere penaltietan lan ederra egin zuen Jonatan Seisdedos atezainarentzat izan zen. Txapelketako pitxitxia Ander Petxarroman izan da, jokalarionena Lander Martin eta atezain onena Francisco Iglesias.

Guztiekin Txus Alonso Kirol zinegotziaren eskutik jaso zituzten sariak.



Lagunekin ospatu zuten garaipena El Punto taldeko kideek.



Trumoi tabernak Indaux menperatu zuen kontsolazio finalean.

## LOKE.

## Ikasturte amaierako erakustaldi eta bazkaria

**Z**inta, borrak, uztaiak... Zairean ibili ziren atzo goizean kiroldegian. LOKEko gimnasia erritmikoko neskek erakustaldi ederra egin zuten.

Bertan denboraldi ederra egin duten Aizpea Arroyo Euskadiko txapeldun amateur eta Garazi Gomez seniorrak edo Ainara Apeztegia jubenila izan ziren haien lanak erakusten.

Maila ezberdinetako taldeek, zein banakakoek ere haien trebezia erakutsi zuten.

## Judo

Aurreko igandean, ekainaren 14an, berriz, judoken txanda izan zen.

Denboraldiari amaiera ederra emateko, ikuskizun bikaina eskaini zuten 80 bat neska-mutilek.

Gorka Aristegi entrenatzaileak azaldu digunez, "balorazio oso positiboa egiten dugu, ez emaitzengatik soilik, baita urteko osoko sentsazioengatik ere".



Denboraldi amaierako bazkarian saritutako lagunak eta LOKEko ordezkariak. J. ALTUNA

## Bazkaria

Era berean, atzo, LOKE taldeak ikasturte amaierako bazkarian bildu zituen Araeta jatetxean kirol ezberdinetako ordezkari eta kirolariak.

Bapo bazkaldu eta denboraldian egindako lanarengatik. Amaia Andres lehendakariak denboraldiko emaitzak azpimarratu zituen eta hainbat kirolari saritu zituzten: tenisean, Alex Fernandorena; atletismoan, Eneitz Busto Espainiako 60 m. hesilasterketako txapelduna eta Jon

Altuna, kideekin izandako pres-tutasunagatik; judoan, Asier Sagasti Euskadiko txapelduna eta Garikoitz Mena eta gimnastika erritmikoan, senior A taldea.

Gorka Aristegi judoko entrenatzaile ikasleek oroigarri bat eman zioten eta taldearen zuzendaritza utzi duten Manolo Morales eta Jesus Diezi aipamen berezia egin zion zuzendaritzak. "Etapa bat bizi dugu. Orain belaunaldi berrien txanda da eta ederki egingo dute" azaldu zuen Moralesek.



Gimnastika erritmikoko eta judoko atalek erakustaldiak eskaini dituzte aste hauetan.

## Agenda

Asteartea, 19:00etan, Ama Brigitarren komentuan



### Ahots zuriez gozatuz

Javier Busto musikariak zuzendutako Aqua Lauda koruak kontzertua eskainiko du Ama Brigitarren komentuan. Garai ezberdinetako abestiak eskainiko ditu ahots zuriez osatutako abesbatza honek. Honetan Montse Latorre, Kristina Perez Abreu, Oihana Diaz eta Carolina Muñoz herritarrek partehartzen dute.

### San Pedro jaiak

OKENDO PLAZA

Ostirala,

11:30, Trikitixa eta pandero kalejira.

12:00, Hurren txupina, Ostadarreko umeen esku.

13:30, Kalejira txorotxararekin Atsobakerraino udaletxe zaharretik hasita.

14:00, Hurren makarronada Atso-bakar parkean.

15:00, Ur Jolasak Atsobakarren eta jarraian Busti Blai.

16:30, Sorgin dantzaren hasiera Oriatik Okendoraino.

17:30, Lokal poteoa.

19:00, Txupinazoa udaletxe berritik Ostadar K.E eta Biyak Bateko kideek botako dute.

20:00, Euskorleas Dixie band taldearen emanaldia.

20:30, The Garax eya Gabeziaren kontzertuak Kale Nagusian.

21:30, Zikiro afaria Okendo plazan.

23:00, Ibai berriak taldearekin dantzaldia Isla plazan.

00:00, Zezen-Suzkoa Kale Nagusia.

00:00, Zea Mays taldearen kontzertua Okendo plazan.

02:00, Gozategi taldearen kontzertua Okendo plazan.

### Lasarte-Oria

#### Dantza

OKENDO PLAZA

Asteartea, 20:00etan

Sorgin Dantzako azkeneko entsegua izango da. Saio irekiak dira. Eguraldi txarra eginez gero, Garaikoetxea eraikinean egingo da.

#### Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

3.Batukada Topaketako argazki bilduma eta argazki lehiaketako lan sarituak ikusgai.

### San Pedro jaien aurrekariak

KIROLDEGIA

Asteartea, 18:00etan

Biyak Bat egoitzako kideek soinketa

erakustaldia egingo dute ikasturtean ikasitakoa erakusteko.

KIROLDEGIA

Asteazkena, 10:00etan

Ur festa egingo da 5 eta 12 urte arteko umeentzat. Parte hartzaileek igeri egiten jakin beharko dute. Joko ezberdinak izango dira.

BRIGITARREN KOMENTUA

19:00, Biyak Bat jubilatuen elkarteko abesbatzaren emanaldia izango da entzungai.

### San Joan sua

ANDATZA PLAZA

Asteartea,

21:30, San Joan zortzikoa Kale Nagusian eta Soka dantza plazan Erketz

EDT, Alboka abesbatza eta Zero Sette akordeoi orkestrarekin.

22:00, San Joan sua piztuko da.

### Sorgin Jaiak

OKENDO PLAZA

Osteguna,

17:00etan

Haurrentzako tailer eta jolasak.

17:30, Zumaburuko Isla plazatik hasita koadrilen jaitziera egingo da Okendoraino.

20:00, Sorgin Jaien Txupinazoa.

21:30, Sorgin afaria.

00:00, King Kong Boy eta Eskean Kristo taldeen kontzertuak.

## Herritarren txokoa

#### Galdutako txaketa

Ostegunean Sorgin dantzako entsegua amaitu ostean, DOMYOS markako txaketa txuri bat agertu zen Okendo plazan. Txaketa tamaina ertainekoa da eta marra grisa du aurrealdean.

Jabea Ttakun kultur elkartera hurbildu behar da bulego ordutegian hau eskuartzeko.

#### Alboka Txikin parte hartu

Hurrengo ikasturtean Alboka Txiki Abesbatza (6-14 urte) parte hartu nahi duenek idatzi dezakete [info@albokaabesbatza.com](mailto:info@albokaabesbatza.com) helbidera eta apuntatzeko egunetan abisatuko zaie izena modu ofizialean emateko.

#### Oriatarren bazkaria

Karmengo Amaren egunean, uztailearen 16an, Oriatarren bazkaria antolatu dute El Jardin jatetxean. Aurten Karmengo Amaren kaperaren 75. urteurrena ospatuko dute eta On

Ramon Uribeberria apaizari omenaldi txikia egingo zaio urte hauetan egindako zerbitzuarengatik. Bazkariak gozatu nahi duten herritarrek jate-txean bertan eman behar dute izena. Menua 30 euro dira eta haurrentzako bi menu daude, bata 8 eurokoa eta bestea 12 eurokoa.

#### Santa Ana pintxoa

Aterpeak Santa Ana egunean, uztaileak 26, Santa Ana pintxoa egitasmoa antolatu nahi du iaz bezala. Honetan parte hartu nahi duten tabernek harremanetan jarri beharko dute Aterpeako kideekin 637 95 50 30 telefonoan edota [itziarirurzun@hotmail.com](mailto:itziarirurzun@hotmail.com) bidez.

#### Sorgin dantza zapiak

Sorgin dantzako zapiak salgai izango dira entseguetan, Jalgin edota Ttakunen. Kotoizko zapiak 9 euroko prezioan, akrilikoak 4 eurotan.

## Sarean

### Tribual, galdera-jokoa

Trivial estiloko galdera-erantzunen jokoa da CodeSyntaxek garatutakoa.


Tribual, Android plataforman garatua eta gailu mugikorretan erabiltzeko aproposa da.

Dagoeneko badira hilabete batzuk Tribual jokoa lehenengo bertsioa sareratu zela. Harrezkero 2.000 lagunek jaitsi dute, eta ia-ia 300.000 partida jokatu dira. Jokoa, GipuzkoaApps saria ere irabazi zuen.

Oraingoan, jokoa bigarren bertsioa da, teknikoki hobetua, galdera gehiagorekin aberastuta, eta eleanitz bihurtuta. Izan ere, euskaraz ez ezik, gazteleraz eta ingelesez ere jokatu ahal izango baita.

Mekanika errazeko jokoa da Tribual, Euskaldunon Tribuaren jokoa. Bost galderako sortak erantzutea da kokoa, ahalik eta azkarren. Galdera-sorta berbera 2 lagunei ematen zaie: ondoen (eta bizkorren) erantzuten duenak irabaziko du partida, eta besteak galdu. Emaiz horren arabera banatzen dira partida bakoitzean puntuak, eta horrela osatzen da erabilzaileen sailkapena.

Android plataforman erabil daiteke jokoa azken bertsio eleanitz. Euskara hutseko aurreko bertsio bat, baita iOSen ere.



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi  
edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintzarri@txintzarri.info](mailto:txintzarri@txintzarri.info)



Eguraldia lagun hainbat herritar eta zubietar animatu ziren Islada Ezkutatuak taldearen ibilaldian parte hartzera.



Lehen azalpenak Hipodromoko aparkalekuan eskaini zituzten.

## Gerrako aztarnak ikuskatzen

### Txaldatxurreko gainera ibilaldia egin zen larunbatean

**1936ko irailean Lasarte-Oria eta bere inguruak borroka gune bilakatu ziren. Honen erakusle Islada Ezkutatuak taldeak Txaldatxurreko mendixkan aurkitutako hainbat lubaki eta aztarna dira. Larunbatean taldea herritar eta zubietarrekin batera bertara hurbildu eta historiako pasarte hori gogora ekarri zuten.**

O kendo plazatik atera zen larunbata goizean Txaldatxurrera zihoan ibilaldia. Hipodromoko zuba igaro eta zubietarrek bat egin zuten lasarteoriatarrekin. Ostean, ordu eta erdiko ibilaldia egin zuten bertara iristeko. Baina hara iritsi baino lehen, hiru geldialdi egin zituen taldeak eremuko egoera irudikatzeko.

Lehen geldialdia, esate baterako, Hipodromoko aparkalekuan izan zen. Honetan, Joxe Agustin Muguruza taldeko kideak eremuaren berezitasun geografikoa eta bertan izan ziren frentek

eta hauen armamentuak azaldu zituen.

#### Defentsa postua

Txaldatxurrera iristean, komun bezala erabiltzen zuten eremua, lubakiak eta tiratzaileen hobiak bisitatu zituzten.

Errepublikarren defentsa lekua izan zen Txaldatxur eta Joxe Agustinek azaldu legez, aurkitutako bala zorroen arbera bertan ez zuten armamentu astunak.

Buruntza eta Andoain aldetik etorri ziren karlistei aurre egin behar izan zion bitan defentsa postu honek

eta bietan irabazle atera ziren gubernamentalak.

Horren harira, oraindik aurkitu ez badituzte ere, eremuan gorpuak daudela ekarri zuten gogora Muguruzak.

#### Eskertzak

Era berean, Mailu Arruti taldeko kideak eskerrak eman nahi izan zizkien haien testigantza eman duten pertsoneri, baita eremuko garbiketa lanean ibili diren lagun guztiei ere. Eta bereziki haien testigantza eta laguntzari esker aztarna arkitektoniko hauek aurkitzen lagundu zieten Jexux Mari Errekondo usurbildarra eta 'Zato' herritarra aipatu zituen.

Ibilaldira joan ziren pertsonen adi jarraitu zituzten taldearen azalpenak eta Txaldatxurren bertan mokadutxo bat hartzeko aukera izan zuten herrira bueltatu baino lehen.



Lubaki artean ibili ziren herritarrek eta adi-adi entzun zituzten azalpenak.



Tiratzaileen hobiak eta komunak ere aurkitu dituzte Txaldatxurren Islada Ezkutatuak taldeko lagunek auzolaenan egindako garbiketan. Muguruzak defentsa nola egin zuten azaldu zuten tiratzaileen hobian.